

# **2013ko abenduaren 26ko 51/2013 FORU DEKRETUA, Informazio eta Komunikazio Teknologien Batzordea sortzekoa.**

## **OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuaren arduetako bat da Gipuzkoako Foru Aldundian modernizazio politikak bultzatzea: Barne kudeaketaren eraginkortasuna sustatuz eta Foru Administrazioa garai eta teknologia berrietara egokituz.

Arlo honetan erabateko garrantzia dute informazio eta komunikazioetako sistema korporatiboek: Teknologia berrien bitartez, barne kudeaketa eraginkorragoa izatea eta herritarrei zerbitzu hobea ematea ahalbidetzen baitute. Informazio eta komunikazio sistema hauek bai Aldundiko departamentuetara eta bai herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuetara egokitu behar dute, oso aldakorra den testuinguru batean.

Horretarako, behar-beharrezkoak dira Aldundiko eragile guztien arteko elkarlana eta koordinazioa. Xede horrekin, foru dekretu honen bidez, Informazio eta Komunikazio Teknologien Batzordea sortzen da.

2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 31.4.c) artikuluan xedatzen duena betez, Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, ondoko hau,

## ***XEDATZEN DUT***

### ***1. artikulua. Sorrera eta atxikipena.***

1. Informazio eta Komunikazio Teknologien Batzordea sortzen da.
2. Batzorde hau Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko Modernizazioko eta Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusiari atxikitzen zaio.

### ***2. artikulua. Xedea.***

Batzordearen xedea izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko informazio eta komunikazio teknologien (IKTen) inguruko politikaren barne koordinazioa, Foru Aldundian IKTak kudeatzeko eredu eraginkorra finkatuz eta garatuz.

### **3. artikulua. Eginkizunak.**

Batzordearen eginkizunak hauek izango dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko IKTen arloko plan estrategikoa egitea, edo egin dadin bultzatzea.

b) Plan estrategikoan identifikatutako IKTen inguruko proiektuak, politikak eta ekimenak lehenestea eta organo eskudunari proposatzea.

c) IKTen inguruko ekintzak Aldundi osoan ezarriko direla bermatzeko gainbegiratze eta jarraipen lanak egitea.

d) Foru Aldundiaren normalizazio teknologikoa lortzeko neurriak hartzea: Baliabideen emankortasun eta eraginkortasun handienak lortzeko, eta sistema eta datu-baseen bateragarritasuna eta komunikazioa lortzeko, beti ere segurtasun berme egokiarekin.

e) Foru Aldundian IKTen aldaketak, egokitzapenak eta eguneratzeak egiteko inbertsioak proposatzea.

f) IKTen kudeaketan praktika onak identifikatu eta erakundean zabaltzea.

g) Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoaren erabilera arautzeko 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuan arautzen den Administrazio Elektronikoaren Batzorde Teknikoarekin elkarlanean, administrazio elektronikoaren garapenerako IKTen eragina era egokian kudeatzea.

h) Foru Aldundiko informazio sistemen segurtasuneko proiektuak bultzatzea, eta hauen jarraipena egitea.

i) Urtero Foru Aldundiko IKTen egoerari buruzko txostena egitea eta zabaltzea.

### **4. artikulua. Osaera.<sup>1</sup>**

1. Informazio eta Komunikazio Teknologien Batzordeak ondorengo osaera izango du:

---

<sup>1</sup> Artikulu hau, honako arau honek aldatu du: martxoaren 1eko 2/2016 Foru Dekretua, abenduaren 26ko 51/2013 Foru Dekretua, Informazio eta Komunikazio Teknologiararen Batzordea sortzen duena (2016ko martxoaren 10eko GAO)

a) Lehendakaria: Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiko titularra.

b) Batzordekideak:

— Modernizazio Zerbitzuko titularra.

— IZFE SA foru sozietate publikoan zuzendari nagusi izendatutako pertsona.

— IZFE SA foru sozietate publikoko ordezkaria.

— Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko ordezkaria.

— Ogasun eta Finantza Departamentuko ordezkaria.

— Gizarte Politikako Departamentuko ordezkaria.

2. Batzordeko idazkaria Modernizazioko zerbitziburua izango da.

3. Kargu horiek hutsik geratuz gero, edota absentzia edo gaixotasun kasuetan, eta, oro har, justifikatutako arrazoiren bat dagoenean, Batzordeko kideak organo horietako ordezkoek ordeztu ahal izango dituzte.

4. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da.

## **5. artikulua. Funtzionamendua.**

1. Batzordeak gutxienez sei hilean behin ohiko bilera egingo du; eta lehendakariak erabakitzen duen guztietan.

2. Aztertu beharreko gaien arabera, lehendakariak bilerara etortzeko deia egin ahal izango die langile teknikariei edo Gipuzkoako Foru Aldundiko beste organo edo unitateetako karguei, hitzarekin baina botorik gabe, betiere.

3. Batzordeak erabaki dezake, lehendakariak proposatuta, gai berezituari buruzko lan taldeak sortzea, irizpideak eman edo txostenak egiteko xedez.

4. Foru dekretu honetan aurreikusi gabeko gaietan, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, II. tituluko II. kapituluan xedatutakoari egokituko zaio Batzordearen funtzionamendua.

**Lehen xedapen gehigarria. Gastua ez handitzea.**

Batzordea eratzeak eta haren funtzionamenduak ez dute ekarriko gastu publikoa handitzerik; eta, horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta IZFE SAri esleitutako bitartekoez –langileenak, teknikoak eta aurrekontuetakoak– baliatuko da Batzordea.

***Bigarren xedapen gehigarria. Departamentuen egitura aldaketak.***

Foru dekretu honetan Batzordea atxikitzen zaion organoa desagertu edo aldatzen bada departamentuen egitura aldaketan ondorioz, horren funtzioak -modernizazio politikei eta informazio eta komunikazio sistema korporatiboei buruzkoak- bere gain hartu dituen organoari atxikiko zaio Batzordea.

Irizpide hori bera hartuko da kontuan Batzordearen osaeran aipatzen diren organoei dagokienez.

***Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.***

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.